

SEED CAPITAL DE BIZKAIA SGEICren (aurrerantzean, SEED CAPITAL) Zuzendaritzaren eginkizuna arrisku-kapitaleko funtsak kudeatzea, administratzea eta ordezkatzeko da. Funts horiek osagai berritzaile edo/eta sozialki berritzaile indartsuak dituzten enpresa berriak sustatzen eta lehendik dauden beste batzuk garatzen laguntzeko sortu dira, denboran zehar kalitatezko enplegua sortzea ahalbidetuko duen enpresa-sare berria eratzeko, kalitate eta profesionaltasun handienarekin, ingurumen-jasangarritasunaren printzipioei jarraituz.

Horretarako, ahalegin guztiak egin gura ditu gizartearen ikuspegitik arduratsua den politika korporatiboaren konpromisoak lortzeko, ingurumena babestearekin, lege-eskakizunak betetzearekin eta sinatzen diren beste baldintza gehigarri batzuekin konprometituta, bere Webgunearen bidez informazio eskuragarria eskainiz eta interes-talde horien arazoizko beharrak eta itxaropenak asetzera bideratuta. Hori guztia, ingurumena errespetatzeko eta kudeatzeko kultura bultzatuz, bere jardueran txertatutako genero-ikuspegiarekin, eta bazkideek agindutako zereginak behar bezala betez.

SEED CAPITALeko Zuzendaritzak, ezarritako etengabeko hobekuntza-prozesuarekin inplikaturik, eta Kalitatearen eta Ingurumenaren Kudeaketarako Sistema Integratuaren esparruan, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Ezarritako Kudeaketa-sistema eta emandako zerbitzuak etengabe hobetzeko mekanika ezartzea.
- Ingurumen-jarduna hobetzea eta horiek eragindako ondorio kaltegarriak minimizatzeko neurri egokiak hartzea, baliabideen erabilera arrazionala sustatzeko eta kutsadura prebenitzeko, hau da, ingurumena babesteko.
- Gure interes-talde guztiekin komunikatzeko bide egokia ahalbidetuko duten mekanismoak ezartzea, gaitutako kanalen bidez iradokizunak eta jardunbide hobeak txertatu ahal izateko.
- Gardentasunaren eta indarrean dagoen legeria betetzearen kulturaren barruan, araudia betetzeko kudeaketa-sistema ezartzea.

SEED CAPITALen Zuzendaritzak bere gain hartzen ditu Kalitate- eta Ingurumen-politika hau eta haren helburu orokorrak, helburu espezifikoak ezartzeko erreferentzia-esparru moduan, eta, modu berean, politika hori garatzeko beharrezkoak diren baliabideak emateko konpromisoa hartzen du.



Zuzendari Gerentea

Sin. Oscar Ugarte Gamboa

2021eko maiatzaren 18an